

ERRALDOI ETA BURUHANDIEN X KONTZENTRAZIOA 2007

Jose Luis Insausti Urigoitia

Artikulu hau hasteko Oarso aldizkariak beti eman didan tratamendua eta utzi didan lekua eskertu nahi nuke.

2007ko urte honetan ikusiko dugun erraldoi eta buruhandien kontzentrazioa, beste behin ere, Landare Elkarateak antolatua izango da, eta aurreko urteetan bezalaxe, herriko jaietan ospatuko da, hain zuzen ere 22an gure Ama Madalena patriaren egunean. Lehenengo urratsak eta hartu-emanak 2006ko irailean hasi genituen, izan ere denbora behar genuen planifikatzeko eta ahalik eta erraldoi eta buruhandien konpartsa gehien kontratatzeko, horrela kontzentrazio handi bat burutu ahal izateko, aurten ospatzen dugun hamargarren urteurrena dela eta. Hori dela eta, aurten gure plaza eta kaleetan ikusiko dugun desfileak, lehenengo aldiz, nazioarteko izaera izango du eta aitzindari izango gara Euskal Herrian, izan ere, gurera etorriko den erraldoi eta buruhandien konpartsetako bat Frantziako ekialdeko pirinioetatik etorriko zaigu, Les Angles-etik hain zuzen ere, Kataluniaren Iparraldetik. Herri hori oso turistikoa da eta 1650 metrotara eski estazioa ere badu, eta bere erraldoiek, Auda eta Llalet-ek, uda eta negua ordezkatzeko dituzte. Konpartsaekin Les Angles-eko Alkatea etorriko zaigu.

Hemen izango ditugu Barbera del Valles-eko kataluniarrak, Sebastia, Clotilde eta Mariona erraldoiekin. Emanaldi itzela egingo dute eta erraldaien dantzak ikusleak ere parte hartzera gonbidatuko ditu. Horiekin batera, Barberako zalditxoak etorriko dira koreografia eder batez lagundurik, horien eramaileak erdi aroko traje ederrez apainduak agertuko dira, balore historiko handiko arropa da hau. Barbera del Valles udal ordezkariak lagunduta etorriko zaigu.

Benetusser-eko valentziarrak ere hemen izango ditugu, bere erraldoi eta buruhandien emanaldi zoragarriarekin. Hauek publikoarekin oso era bitxian jolasten dute, bai erraldoiak bai buruhandiak erdi aroan girotuak daude eta musika banda handi baten laguntza izaten dute. Ez da harrizkoa Valentziatik etorrita. Konpartsa honek oraindik mantentzen du Benetusser-eko Gorpuzti eguneko prozesioan lagundu eta desfilatzeak ohitura.

Soriatik Asociación de San Pedro-ko erraldoiak etorriko dira. Numancia herri zeltiberiarreko pertsonai batzuk irudikatzen dituzten bi figura dira, Retogenes eta Dagda-Ico, historiako gertaera heroiko eta epikoak burutu zituzten bi pertsonaia.

Nafarroa ere bertan izango dugu, Etxalar herria izango dugu eta horko Baserritar bikotea, biak oso dotore jantzita.

Gipuzkoatik sei konpartsa izango ditugu eta eskualdean hain maiteak ditugun herri hauek ordezkatzeko dituzte: Hondarribia, Irun bi konpartsaekin, Oiartzun, Lezo, Pasaia, eta gure Orereta-Erreterria maitea, baita Pontika eta Galtzaraborda auzoak ere. Guztira hamalau konpartsa eta 75 irudi baino gehiago erraldoi, buruhandi, zalditxo eta bestelako irudiak hartuta. Gainera, garraiatzaile, musikari eta abarren artean 300 pertsona inguru izango dira erraldoi eta buruhandien kontzentrazio honetan.

Niretzat urte hau oso berezia da, hori dela eta nire dedikazio, saiakera, eta ilusio guztiak jarri ditut egun handi hau ahaztezina izan dadin Orereta-Erreterrian, eta hain leku ezberdinetatik etorritako konpartsa horiekin disfruta dezagun, bere musika, dantza, kulturak gozatuz. Nioen bezala, niretzat oso egun berezia izango da, izan ere hain maiteak ditudan erraldoi eta buruhandien topaketa hauek antolatzeko ardura 10 urtez eraman ondoren, 2007ko urte hau topaketa hauek antolatzen ditudan azkeneko urtea izango da, eta egon al liteke hau baino agur hoberik? Ama Madalenaren egun handirako bihotz-bihotzez prestatutako emanaldi handi hau baino ezer hoberik? Eta gainera hamargarren urteurrena ospatzen denean.

Aukera hau paregabea da esker oneko hitz batzuk esateko, izan ere izugarrizko bedeinkapena da familia batu bat edukitzea laguntza emateko. Nire kasuan, bi emakume zoragarriren laguntza, indarra, eta ulermen etengabea eskertu nahi ditut: M^{re} Nieves nire emaztearena eta Leire nire alabarena; nire aldamenen egin baitituzte erraldoiei buruzko ikerketako lehenengo urrats gogorrak, eta baita kontzentrazio ezberdinak ikusteko egindako joan-etorriak ere, horrela izan baitugu konpartsa ezberdinekin kontaktu zuzenean.

na egiteko parada. Eta nire idatziak eta agiriak gainbegiratzuz eman didaten laguntza eskerga ere hor dago. Ez daukat hitzik egunerokotasunean, azken helburua lortzera begira, eman didaten laguntza eskertzeko.

1990an Orereta-Erreterriako erraldoi eta buruhandiei buruzko artikulua labur batekin laguntzeko aukera ikusi nuenean, eta Oarso aldizkarian argitaratzeko aukera sumatzean, galdera mordo bat bururatu zitzaidan nire oroitzapenei egiteko eta horrek nahikoa interes piztu zidan pertsonaia hauen inguruko ikerketa bat egiteko asmoa aurrera eramateko. Inolako aurreproiekturik gabe, aurreko ikerketa lan batzuetan gordetako dokumentuen karpetak eta fitxategiak birpasatu nituen gure erraldoi eta buruhandien konpart sarekin zerikusia zuen guztia aurkitu nahian, emaitza etsigarria izan zen eta pertsonai horiei buruzko hain informazio gutxi egoteak harritu egin ninduen. Udal artxiboan herriko jaien egitarauak birpasatu nituen banaka-banaka eta orriz orri, jaiekin erlazionatutako prentsa-ebakinak arakatu nituen, artikulua batzuk berriro irakurri nituen gure konpart sarearen biografia osatu bat hasteko datuak bilatu nahian, eta erraldoi eta buruhandien fenomenoak sakonago ikertzea proposatu nion neure buruari, eta hasteko, gure zaharrei entrebistak egin nizkien datuak zehazteko asmoz. Azkenik, argazkien kutxan arakatzeko aritu nintzen, beste etxe askotan bezala gurean ere bada horrelako kutxa bat eta atera nuen eta erraldoi eta buruhandiak agertzen ziren argazkiak hartu nituen. Hurrengo pausua beste hainbat lekutako konpart sei buruz dagoen bibliografia guztia eskuratzeko izan zen, beti ere erraldoi eta buruhandiak aipatzen baziren herrietako mito, legenda eta ohituretan sartutako sinbolo gisara.

Oinarri sendoxeago bat nuela konturatzean, etorkizuneko lanaren egitura antolatzeari ekin nion; hasieratik lan hori hiru arlotan banatuta geratu zen: erraldoiak sinbolo mitologiko gisara eta horien presentzia Euskal Herrian, elementu horiek jaietarako noiztik eta nola erabiltzen diren, eta azkenik, erraldoi eta buruhandien agertzea Orereta-Erreterrian. Ikerketa honen amaieran bi liburu argitaratu ziren 2001 eta 2004an, Kutxa erakundearen eskutik, eta orain, 2007ko maiatzean hirugarren liburu bat bukatu dut, aztertua eta zabaldua, eta datu kurioso asko biltzen ditu, gainera mundu osoan zabaldua dauden erraldoi horien informazio askoz gehiago dakar, eta berehalakoan argitaratuko dute. Horrelaxe hasi zen ikerketa hau, etsipen eta pozen arteko nahasketa batekin, datu ezkutuen bila, eta 17 urte hauetan horrela jarraitu du izaten.

Apurka-apurka zahartzen ari naiz, baina bizitza aberatsa izan dut arlo guztietan, batez ere kultur arloan, eta egindako guztiak asetasun pozgarria eman dit, baita melankolia apur bat ere galdutako ilusio batzuek sortua.

Hala eta guztiz ere, erraldoien eta buruhandien munduak hamaika konpartsa eta erraldoi ezagutzeko aukera eman dit, eta era berean, Orereta-Erreterriatik gure erraldoi eta buruhandiekin ezagun egin gara herri eta hiri askotan, eta gaur egun, badakite nor garen eta non gauden. Baina guztiaren gaitetik, garrantzitsuenak da egin ditudan benetako lagun kopurua, bai Euskal Herria osoan bai hemendik kanpo, eta hori oso garrantzitsua da nire bizitzarako.

Gai honi buruz, adiskidetasunaz, zenbait gogoeta egin nahi nuke. Nire sentimendu eta ulermenetik abiatuta benetako adiskidetasunari buruzko zerbait aipatu nahi nuke, ikerketa hasi nuenetik 17 urte hauetan hainbeste leku ezberdinetako eta hain kultura desberdineko jendearekin egon eta gero, eta erraldoi eta buruhandien 10 topaketa egin ondoren. Aipamen berezi bat egin nahi diot eta eskerrik handienak eman Joseph Torrella Barbera de VALLEseko konpart sarearen presidente eta lagun handiari, bere lankidetzak eskerga izan da eta erraldoi eta buruhandien inguruko nire ikerketetan izugarri lagundu dit, eta X kontzentrazio hau sonatuagoa egiteko emandako laguntza ere itzela izan da.

Ezin dut hemen ahaztu Molins de Reiko katalan gazte hori ere, Miquel Burges, erraldoi eta buruhandien mundua primeran ezagutzen du, eta horiek eramaten ere paregabea da. Beti izan dut bere laguntza eskatu diodanean.

Era berean, Soriako lagunei ere nire eskerrik beroena, eta bereziki Eduardo Garciari, hamargarren kontzentrazio honetan egoteko azaldu duen jarrera ona eta esfortzuagatik.

Les Angleseko konpart sareari ere, eta bereziki Cedrik Blanch-i, konpart sarearen lehendakariari, eskertu nahi diot kontzentrazio honetan egoteko gonbidapena jaso zuenetik egin dituen esfortzu guztiak.

Benetusserko nire lagunei ere bihotz-bihotzez eskertzen diet hamargarren edizio honetan gurekin egoteko adierazi duten jarrera ona eta bereziki bere presidenteari José Vicenteri.

Kataluniako nire lagun batzuk ere aipatu nahi nituzke: Elvira Catala eta bere senarra, José Luis, biak ere erraldoien mundu honetan burubelarri sartuak, argazki kamerak soinean dituztela, munduan diren konpartsa guztiei ahalik eta argazki gehien atera nahian.

Saiatu naiz, beti ez badut lortu ere, lagun bezala onena ematen, hala ere badakit ez naizela denen lagunik onena izango. Adiskidetasuna, Kultura bezalaxe balore unibertsalak da, eta elementu askok osatzen dute. Adiskidetasuna benetakoa izan dadin batzen gaituen zerbait egon behar du, adiskidetasuna maitasuna da, ematera bultzatzen zaituen zerbait, eta horretarako beharrezkoa da elkar topatzea eta hitz egitea.

Adiskidetasuna benetakoa izatera hel dadin, ez da nahikoa elkarrekin une batzuk pasatzea, behin-betiko pausua eman behar da: elkarri inolako ordainik espero gabe laguntzea.

Leiala izateak hitzeko gizona izatea esan nahi du, adiskidetasunak berarekin daramatzan konpromisoei fideltasunez erantzutea. Leialak dira kritikarik egiten ez duten lagun nobleak, marmarrear aritzen ez direnak, belarrira esandakoa zabaltzen ez dutenak, egiazale direnak; eta lagun onak dira bere lagunaren interesak eta izen ona defendatzen dituztenak. Lagun batek zuk bihotzean daramazun abestia ezagutzen du, eta zuri ahaztuz gero abesten lagundu egingo dizu.

Gogoeta hauek bukatzeko, desio bat adierazi nahi nuke: ziur egon gure ezagunen artean adiskidetasunerako ahalmen izugarria dagoela; eta hori horrela bada, zergatik ez dugu ahalmen horretan arakatzen eta gure bizitza berritzen lagun berriak eginez? Azken batean, adiskidetasuna ez da aurkitzen den gauza bat, sortu egiten da; eta hori horrela da guztiontzat. Gure baitan dagoenaren onena emateko ahalmena guregan dago.

Eskerrak eman nahi dizkiet Euskal Herriko txoko guztietatik zein kanpotik etorri eta 10 urte hauetan gurekin parte hartu duten erraldoi eta buruhandien konpartsa guztiei. Esker ona baino ez dut guztientzat, izan ere, guztiekin, oso erraza egin zait akordioetara iristea, batez ere unerik latzenetan.

Orereta-Errenteriako Udalarari ere eskerrak eman nahi dizkiot hamargarren urteurren hau guk amesten genuen ikuskizun handi hori izan zedin emandako laguntzagatik. Eta gauza bera jarraian agertzen diren gure herriko establezimendu eta erakunde guztiei ere, gurekin hamargarren urteurren honetan lankidetzan aritzezagatik mila esker: Orereta Ikastola, Eroski Supermerkatua, Errenkoalde Elkartea, Euskadiko Kutxa, Ceramicas Maria Antonia Zapirain.

Cerámicas Mangas, Construcciones Hermanos Aramburu, Construcciones Oiarbide, Kutxa, Seguros Lagun Aro, Seguros Aira-Jakin, Suministros Sanitarios Oarso, Fontanería Camave, Zuketx Jatetxea, Juli Taberna, Panificadora Lekuona, Oreretako erraldoi eta buruhandien konpartsa osatzen duten partaide guztiei, Oreretako Txistularien Udal Bandari, Ereintza elkarteko Txistularien Bandari, Landare elkarteko Txistularien Bandari, Lezoko Txistularien Bandari, Oreretako Dultzainero eta Trikitilarien taldeei, parte hartu duten Txaranga ezberdinei, Errenteriako Musika Kultur Elkartearen Bandari, Cofradía del Tambor de Amuletari, gurekin aurreko edizioetan parte hartu duten herriko establezimendu guztiei, Landare Elkartearen zuzendaritza ezberdinetan parte hartu duten lagunei, benetan eta bihotzez eskerrak guztioi, lankidetzagatik, baina batez ere mila esker nire aldamenean izan dudana giza talde eta lagun talde handi horri: Juantxo Arrieta, Jose Ignacio Zamora, Pako Sanz, Rafa Iriberrí, Jose Cruz Sarasola, Ramon Hernandez, Alfredo Rodríguez, Ander Bengoetxea eta Juantxo Maia, eta mila esker urte guzti hauetan bere iritzia, adorea, adiskidetasuna e.a. erakutsi didaten pertsona guzti horiei ere, eta jakinarazi nahi diet oso pozgarria eta estimulagarria izan dela nireganako eta nire lagunenganako estima hori jasotzea.

Pozik eta alai nago, haurrengan nahiz helduengan, sentimendu bat, ilusio bat, maitasun bat, azken batean pertsonaiak historiko hauek gehiago maite dituztela ikusi baitut. Eta gehiago esan-goto nuke, Erraldoi eta Buruhandirik gabeko jaiak ez dira jaiak.

Artikulu honekin amaitutzat emango dut erraldoi eta buruhandiek eta hamargarren urteurrenarekin lotutako guztia. Honekin batera, aurtengo kontzentrazioan parte hartuko duten konpartsen argazkiak jartzen ditut, eta horrela, nire aldetik, itxita gelditzen da 10 urte hauetako Orereta-Errenteriako kontzentrazio eta Erraldoi eta Buruhandien desfileen kontu hau.

PARTEHARTZAILEAK

ERRALDOI ETA BURUHANDIEN X KONTZENTRAZIOA.

Barbera del valles	Catalunya	Irrintzi	Gipuzkoa
Benetusser	Valentzia	Oiartzun	Gipuzkoa
Les Angles	Frantzia	Lezo	Gipuzkoa
San Jorge	Soria	Pasaia	Gipuzkoa
Etxalar	Nafarroa	Orereta-Errenteria	Gipuzkoa
Hondarribia	Gipuzkoa	Pontika Auzoa	Gipuzkoa
Bidasoako-Txaranga	Gipuzkoa	Galtzaraborda Auzoa	Gipuzkoa

MARIA MAGDALENA

Con humilde corazón
Quiero lanzar mis versos
A santa Maria Magdalena
Nuestra grandiosa patrona
Orereta se pone a tus pies
Errenteria te acoge en tu ermita
Los oreretarras te aclaman sin cesar
Y por eso hoy esperan con alegría
Que salgas al encuentro de tu pueblo
Que esperan tu dulce mirar

J.L.I.



